

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rosario Badiola Alkorta Tobaneku

*Ondarroa,
Bizkaia (1926)*

Aurkibidea



Biografia



San Inazio kalean jaio eta hazi zen. Gurasoak ere Ondarroakoak zituen, biak lehendik alargundutakoak: amak 2 seme zituen, aitak 7 eta ezkontza honetatik beste 5 jaio ziren, Rosario nagusiena. 14 urtera arte eskolara joan arren herriko lantegi desberdinetan ume-umetatik aritu zen beharrean, hori izan da bere bizimodua: behar eta behar. Gerra Zibilean reketeak herrira sartu zirenekoa, reketeen eta falangisten jantokietara jateko eske joaten zirenekoa, dorreko ezkutalekuko egonaldiak... ditu gogoan, besteak beste.

Zintak

OND-039

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-06-22
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

Pasarteak

1. Bi alargun ezkondu

- **Erref:** OND-039/002
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:01:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Tobanekoa deitu arren, ez dira berez. Astarrikanekoa ama eta Periko Txatoa aita, biak alargunak, bien artean hamalau seme-alaba.

2. Aña siku Madrilen

- **Erref:** OND-039/004
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:01:33. **Bukatu:** 00:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ama Madrilen egon zen aña siku. Bi alargunen arteko ezkontza hitzartu eta itzuli zen Ondarroara.

3. Eskola utzi eta antxoari burua kentzera

- **Erref:** OND-039/007
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:07:14. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Agirreorean hasi zen antxoari burua kentzen. Antxoa-sasoian, eskola utzi eta fabrikara joaten ziren.</p>

Transkripzioa

<p>- Umetako ze akordu dekozu zuk o?</p>

<p>- Ba umetako akordu, baakixu, gazteik biharrea. Jun nitxan Aguirreorea.</p>

<p>- Nora?</p>

<p>- Aguirreoa.</p>

<p>- Aguirreoa.</p>

<p>- Antxobiai buru kentzea. Ta eitten eben harrixo ipini, halako kuadrako harri bat ipini, hantxe gaiñin jarri eta antxobiai buru kendu. Aurten eskolan uda... ointxe ixaten da antxobi, eon da. Eskolai laga eta jun, ta gero eskolaik natural ikasi be ez, ze eskola eitteko sasoin laga ta juten bazaz fabrika… Nik ointxe be esaten dotset neskai behian, haunek eta horrek, hori ein ta suma ta resta... nik ez dakit /eztaitt/, e! "Yo soy analfabeta en esas cosas" ta erderaz esaten dotset, eta berak diñoste "no importa". Ta ikusten nabekin, gero eitten dot. Esaten dote: "ondo daz honek, baiñe... zuk esaten dozu hori, baiñe horrenbesteku ez da gauzi", eurak esaten dote. Baiñe barre eitten dotset eta kitto.</p>

4. Nahiago hiletara eskolara baino

- **Erref:** OND-039/009
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Hamalau urtera arte eskolan. Azken mailan zegoela, zaharrenek esaten zioten andereñoari esateko hiletara joan behar zutela, eskolatik alde egitearren.

5. Irakasleak jaramonik ez

- **Erref:** OND-039/012
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Irakasleak ez zien jaramon handirik egiten, zaharrenei eskaintzen zien arreta.

6. Abila lanerako

- **Erref:** OND-039/013
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:14:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Hamabi urterekin hasi bazen ere, eskola utzi ondoren ez zitzaion falta lanik. Hainbat arrain-fabrikatan egin zuen lan: Agirrean, Ortizenean eta Kulixkan. Aitagarreba eta amagarreba zituen etxean.

7. Emakumeek egiten zituzten gizonezkoen lanak

- **Erref:** OND-039/014
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:14:53. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Orain gizonezkoak ibiltzen dira fabrian, lehen ez. Emakumeek egiten zituzten gizonezkoen lan asko. Zimarroiari ez zitzaion burua kentzen, baina atunari bai, eta eurek kentzen zioten matxeteaz.

8. Kulixka arrain-fabrika

- **Erref:** OND-039/016
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:18:09. **Bukatu:** 00:18:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Urkizuk eta Jose Luis de La Ricak arrasteroa erosi zuten eta arrain-fabrika egin zuten.

9. Matxetea norberak erabiltzea hobeto

- **Erref:** OND-039/017
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Ortizek zinema egin zuenean, fabrikatik eraman zituen langileak hura garbitzera. Handik heldutako bi gizon zituzten fabrika atunak erditik ebakitzeko eta burua kentzeko, baina eguerdiko txikitoak hartuta etortzen zenez bat, andreak nahiago zuten eurek egin lana, edandakoaren matxetetik hurbil ibili baino. Galdarak ere emakumeek garbitzen zituzten.

Transkripzioa

- Eta esan dozu gizon biharra be bai, eta zeintzuk izaten zin gizon biharra?</p>

- Gizon biharra ixaten zin, ba, esan dotsut /esatzut/ ba, atunak hori eindde, atune gero erdittik bi ein biher zan /bizan/, eta matxetaz. Gixon bi etorten zin hona Ortizenea. Zini Ortizek ein eban han zini; zini dakar Ortizek han e, aldatzin bixkat guzela, hori, Bide-Onera. Haxe garbitzen be parte euki neban nik. Fabrikatik bixaldu genduezen zini garbitzea. Haxe be garbittun... parte. Eta gero, e... hori. A! Ta fabrika, gixon... handi biharra amaittu zittuenin, fabrikakuk, ba, despatxa ezin zittuen ein ta ekarri zittuen honaxe. Eta bixak eitten eben... bata eitten eban, bazkaittik urtendakun, txikituk eran, ero bazkaittan be eran eta gero etorten zan matxetaz atunek ebaitxen. Eta gu aurrin, tiñatik ataten. Ta guk ni ez nule haren aurrin eitte, ze kutxilluk eskapaten badotsa /batza/ geuri sartuko doskule /sartukozkule/ eta, nahixa dotela /naxarotela/ neuk eitti. Berak ein biher eban /einbiban/ biharra, norberak ein: atune erdittik bi, buru kendute eotezan ta. Ze aurretik eitten zan buru kendu, kakati eitten zan ba bean gaiñin dala. Hartu alderdi bateku eta jo matxetaz eta buru erdixe; beste alderdire buelta eta beste hori, eta gero ata tripak eta buru. Eta ha eitten zan gero ba prejiuteko ero, egosteko ero… zetako zan. Eta holantxeik e, holakoxe biharra eitten. Eta beste gauza asko be bai. Galdarak igual atati zanin ta, galdarak garbitzea eta, gixonan biharra di horrek, baiñe geuk eitten genduzen, ze ez euan gixonik biharreko ta.</p>

10. Arrainen neberan hoztuta gaixotu

- **Erref:** OND-039/019
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:21:47. **Bukatu:** 00:23:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Oso gutxi irabazten zuten. Kartillakoaz gain zerbait gehiago irabazten zuten. Arrainen hozkailuan hoztu, eta kalean gaixotu zela entzun behar izan zuen.

11. Lan bai, baina kotizatu ezer gutxi

- **Erref:** OND-039/020
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:23:42. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Ez zuen kotizatu: Agirreanean zituen egun gutxi batzuk. Fabrika meniskoa apurtu zitzaion eta Donostiara joan behar izaten zen: lehenengo Debara autoan eta handik Donostiara trenean joan behar izaten zuen.

12. Neska gazteekin lanean

- **Erref:** OND-039/022
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Neska gazteekin jartzen zuten fabrika lanean haiek zuzentzeko, eta Rosariok ondo zekien nola kontrolatzen zituen ugazabak, gazteagoek sinetsi ez arren. Orain ere etortzen zaizkio gazteak agurtzera.

13. Fabrikara gaztetxotan, eta beste guztia ahaztu

- **Erref:** OND-039/024
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:33:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Dotrinara joan zen jaunartzea egiteko, baina horra ere gutxi. Fabrikara gaztetxotan hasiz gero, beste guztiari ez zaio jaramonik egiten.

14. "Cara al sol" abestu behar ogi biguna lortzeko

- **Erref:** OND-039/025
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:33:57. **Bukatu:** 00:36:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Etxeko leihotik ikusi zituen erreketek Ondarroara heltzen. Herrian,

jatekoa egiten zuten tokira joaten ziren lapikoekin soberakinen bila. Falangistek ireki zuten jantokian "Cara al sol" abestu behar zuten mahai gainean umeeek ogi biguna lortzeko.</p>

Transkripzioa

<p>- Errepublikakorik-eta akorduan dekozu?</p>

<p>- Gerra aurreku akordaten naz geu bixi giñan goixan euan ganbari, eta ganbarik eukan bentani horraxa Santa Kutzea, Santa Kutz dakar ixena ermittik eta. Enda hortixeik behera baja zin reketik. Hortik behera baja zin, ta gero batelin –zubixak botata euazen ta– batetik bestea pasa zin. Hori gogun dakat: batetik bestea reketik hori eindde. Ta gero juten giñan gu bixkat, bueno, asko hori ein baik, ba, eon zin reketik hamentxe, hamen eskoletan. Hamen albut daz eskolak, nazionalak ixandakuk, ta hor behian. Beste estilo batea euan ordun, eskillarak eta beheko hori ta hori. Ta han eitten eben jateku ein ta gero sobranti emon eitten eben /etxeben/ jentiai etxitako. Juten giñan lapikuaz jateko bille. Ta han eoten tzin pertsona batzuk, ba, español usaiñekuk ta gu nazionalistak, ta "Horrek fuera, fuera, horrek nazionalistak di ta”. Ta gu, kotxauok, gaztik, ba, ixil-ixilik, buelta ein. Ta hori. Gero falangistak ipini eben on ee zinin, lehen esan doten /esaoten/ zinin aurrin. Ta gero haraxe juten giñan. Ta han ein bihir /enbir/ ixaten zan “Cara al sol” kanta, mahai gaiñea altzata, jan aurrin. Ta, baakixu, jate... “Cara al sol” kantaten ebanai ogi bigune, ta bestiai ogi siku. Ta “Cara al sol” kantateko, haraxe [berta] altza esku eta “Cara al sol” kantata. Han batzuk “Horrek, horrek nazionalistak di, horrek nazionalistak di ta fuera”. Horrek geu... Ta gaur haetxek di nazionalistak, eta gu fuera.</p>

15. Bonbardaketetan "torrera" joaten ginen babestera

- **Erref:** OND-039/027
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:37:32. **Bukatu:** 00:38:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerrako bonbardaketetan izebaren etxera, "torrera", joaten ziren, harrizkoa zenez, seguruagoa zelakoan. Bestela, etxe barruan egoten ziren. Zenbait emakume atera zitzairen bidera erreketeei.

16. Atunetan zebilela atxilotu zuten aita

- **Erref:** OND-039/028
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:38:44. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Rosarioren aita atunetara joaten zen gerra garaian. Itsasoan atxilotu eta Gijoneko zezen-plazan egon zen atxilotuta. Arrantzale gazte bi, aldiz, gerrara bidali zituzten eta han hil ziren.

Transkripzioa

- Zure aitta eta be, berton?

- Ee... hori. Bai, aitte ta. Aitte... aitte itxosun gero ibiltten zan. Eta aitte... hiru txalopa Ondarrun geatu zin. Eta aitte ta beste bi, aitte ebillena eta beste bi, ba, atunetan. Ta atunak gerua harutza, gerua harutza, ta eitten zin gerua harutza jun. Ein zittuen gorrixak atrapa, ta ein zin plaza de torosen Gijonen, hantxe preso euki zittuezen. Ta gaztik, bi edo hiru euazenak, harek ein zittuezen gerraa bixaldu. Ta bixak... bixak hil zin. Bi badaitt hil zine, ze alabak eukazen, ta alabai esaten otsan harek etorten zanin: "Ondiokan aitte... aitta baik geatuko zaze zuek"; esaten ei otsan, ta "aitta baik?" eta "bai, ze gerua harutza guz ta atrapa ingo gaittue". Ta, efekibamente, atrapa ein zittuezen.

17. Zorritz beteta itzuli zen aita

- **Erref:** OND-039/029
- **Iraupena:** 0:00:05. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Atxilotuta egon ondoren, zorritz beteta itzuli zen aita etxera. Harrezkero, arrantzan jarraitu zuen.

18. Nebak kontzentrazio-esparruan

- **Erref:** OND-039/031
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:40:29. **Bukatu:** 00:41:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Neba zaharrak kontzentrazio-esparruan egon ziren.

19. Ondarrutik Venezuelara ihesean

- **Erref:** OND-039/033
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:41:11. **Bukatu:** 00:42:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Izeko bat Bilbora joan zen gerra garaian. Beste batzuk Frantziara, eta batzuk handik Venezuelara. Ondarrutar asko joan ziren Venezuelara.

20. Kaniketan umetan

- **Erref:** OND-039/035
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:44:46. **Bukatu:** 00:45:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan kaniketan jolasten zuten. Andrazkoek futbolean ez, baina beste jolas asko zuten, txintxirrikan, besteak beste.

21. Bularrak elkarri erakusten

- **Erref:** OND-039/036
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:45:16. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Neska koxkorrak zirela, barrara joaten ziren eta arropak erantzi eta elkarri bularrak erakusten zizkieten; erakutsi eta konparatu, eta bera lotsatu egiten zen.

22. Ibon, euskal izena

- **Erref:** OND-039/038
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:46:52. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Nebaren izena Ibon zen, eta maisuek gaztelaniaz nola zen galdetzen ziotenean, haserre itzultzen zen etxera.

23. Irabazitakoa amarentzat

- **Erref:** OND-039/041
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:51:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Irabazten zuten diru gutxia amarentzat izaten zen.</p>

24. "Baltsioan" Andra Mari jaietan

- **Erref:** OND-039/043
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:51:53. **Bukatu:** 00:53:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Andra Mari jaietan, plazan musika jotzen zuten; fabrikako enkargatua zen musikarietako bat eta esku arteko lana arin amaituz gero, plazara joateko baimena ematen zien. Gero, plazan, kontrolatu egiten zituen "baltsioan" ari zirenean.

25. "Despeskarako" deia etxerik etxe

- **Erref:** OND-039/044
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:53:20. **Bukatu:** 00:54:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Arrasteroekin lan eginez gero, ordurik gabe. Sareekin arrantzatu ostean, "despeskarako" deitzen zieten emakumeei etxerik etxe, arrainak sareetatik askatzeko portuan.

26. Etxerako antxoa-kontserbak

- **Erref:** OND-039/045
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:54:20. **Bukatu:** 00:55:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Berak, bere kontura, antxoa sasoian, antxoa-kontserbak prestatzen zituen etxean.

27. Antxoak medikuari

- **Erref:** OND-039/047
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:56:16. **Bukatu:** 00:56:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Etxeko antxoa-kontserbak fabrikakoen aldean onak dira. Sarritan, medikuei oparitzen zizkien etxeko antxoa fileteak.

28. Gabonetan jateko bereziak

- **Erref:** OND-039/051
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:00:02. **Bukatu:** 01:01:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetan ez ziren inora joaten, baina jatordu bereziak egiten zituzten: bildotsa edo txuletak eta turroia edo pastelak, eta beti ardo ona.

29. "Antiguako Ama" kanta

- **Erref:** OND-039/053
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:03:50. **Bukatu:** 01:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Ez da izan oso kantorea, baina kantatu izan du. "Antiguako Ama" abestia kantatzen du apur bat.

30. "Gabon-gabaren zoragarria" kanta

- **Erref:** OND-039/054
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:04:36. **Bukatu:** 01:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>"Gabon-gauaren zoragarria" abestia kantatzen du.</p>

31. "San Juan Bautista" kanta

- **Erref:** OND-039/055
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:05:45. **Bukatu:** 01:06:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

San Juanetan auzo batera joaten ziren eta iluntzean danbolinteroarekin aurrekuan jaisten ziren herrira. "San Juan Bautista" kantatzen du.

32. "Santa Klara" kanta

- **Erref:** OND-039/056
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:06:56. **Bukatu:** 01:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Santa Klara egunean ere abestu egiten zen. Ermitara joaten ziren abuztuaren 10ean. Santa Klararen kanta abesten du.

33. San Lorentzo Egunean Asterrikara

- **Erref:** OND-039/057
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:08:03. **Bukatu:** 01:08:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

San Lorentzo Egunean Asterrikara joaten ziren; guardia zibilak egoten ziren han.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com